AMESLARIOK... ZER BERRI?

Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

ASTEKARIA: 64. alea | DATA: 2026/02/13

GUREAN

INAUTERIAK IKASTOLAN

Gaur inauteriak ospatuko ditugu ikastolan. Auzora jaisteko asmoa geneukan, baina eguraldiak ez digu lagundu. Goizeko kalejira bertan behera geratu da, baina arratsaladean bai, elkarrekin egongo gara ikastolako frontoian. Aurtengo gaia "marrazki bizidunak" da. DBHko ikasleek, lehenengo hiru ordutan klasea eman ondoren, mozorro eta "sketch" lehiaketa egin dute. Izugarrizko giroa bizi izan dugu ikastolako handien artean. Arratsaldeko plana ere mundiala da. Haur Hezkuntza (HH 3-4-5) eta Lehen Hezkuntzako ikasleek arratsaldeko 15:30ean inauteri jaia ospatuko dute Ikastolako frontoian. Bertan, 3-12 urte bitarteko ikasleek zenbait dantza eskainiko dituzte.

GURE INGURUAN

DONOSTIAKO INAUTERIAK

NOIZ: OTSAILAK 12-17
NON: DONOSTIA

2026ko Donostiako Inauteriak atzo hasi ziren ospatzen eta 17ra arte hainbat ekintza egingo dira. Otsailaren 14an, larunbata, eta 15ean, igandea, 17:01ean, 26 konpartsek parte hartuko dute hiriguneko kaleetako desfileetan. Gora inauteriak!

INFO+

BAZENEKITEN?

ALTZAKO INAUTERIAK DATORREN ASTEBURUAN OSPATUKO DIRELA?

Konpartsak Altzako kaleetan zehar desfilatzen ikusteko aukera berria izango dugu otsailaren 21 eta 22an. Harria parkean izango da hitzordua.

ZUEN PROPOSAMENAK HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus